

# FUNTSEZKO ELKARTEAK



**Garazi Etxarte  
Harriet Urdampilleta  
Oier Arraztio  
Garazi Aizpurua**

Gure proiektua aurrera eramán ahal izateko, beste enpresekin harremanetan jartzea eta beste enpresekin aliantzak egitea beharrezkoa ikusten dugu.

Guk ECOALF, PARLEY, Ecoembes, Leroy Merlin, Google Play eta App Store-rekin aliantzak egingo ditugu.

Gure proiektua aurrera eramateko elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak egingo ditugu. Aliantza mota hauetan parte hartzen duten enpresen negozio-ereduak ez dira lehiakide merkatu-segmentu edo baliabideei dagokienez, eta elkarrekin lanean aritzea bientzako izan daiteke onuragarri.

Batetik, **ECOALF**, material birziklatuekin arropa eta zapatilak egiten dituen enpresa bat da, eta guk haiekin aliantza egingo dugu guk saldu nahi ditugun produktuak egin ditzaten. Ondoren, guk enpresa horri arropa eta oinetakoak erosiko dizkiogu eta merkatuan salduko ditugu. Elkarte mota honen helburua materialen eskuragarritasuna bermatzea izango litzake. Beraz, hau jakinda, enpresa hori gure hornitzailea izango litzake.

Bestetik, aurretik esan bezala, gure produktuak sortzeko material edo hondakin birziklatuak behar ditugu. Hondakin hauek lortzen gu saiatuko gara herri ezberdinetan edukiontziak jarritz, baina hondakinak gehiago eskuratzeko, **Ecoembes** enpresarekin aliatuko gara. Enpresa honek hondakinak eta ontziak jasotzen ditu Espainia guztian zehar bere edukiontzien bitartez. Beraz, guk enpresa honi diru bat ordainduko diogu hondakinak jaso eta edukiontziak gure ordezt jartzeagatik, eta ondoren material hauek izango dira arropa eta oinetakoak egiteko erabiliko direnak.

Baita ere, ekin aliantza egingo dugu. Leroy Merlin eraikuntzan, brikolajeetan, lorategietan espezializatutako enpresa bat da. Enpresa honekin aliantza egingo dugu bertan landatu nahi ditugun loren eta zuhaitzen haziak erosiko ditugulako. Landare eta zuhaitz horiek erosteko dirua ECOALF enpresak egingo dizkigun produktuetatik lortuko dugu.

Gainera, **PARLEY** enpresarekin egingo dugu aliantza. Enpresa hau ozeanoetako plastikoak eta beste zikinkeriak jasotzeaz arduratzen da eta horiekin hainbat proiektu burutzen ditu baina guri interesatuko gaituena, arroparen ekoizpena birziklatutako materialen bidez egitea da eta adidas-ekin egiten duten bezala, guri arropa horiek salduko dizkigute.

Horrez gain, **Google Play** eta **App Store**-ekin kooperatuko dugu, aplikazio bat sortzeko eta era horretara gure bezeroek, gurekin elkarlanean eta gure produktuak era errazagoan. Beraz, beste edozein enpresa garrantzitsuk bezala, hainbat baliabide eskainiko ditugu gure enpresarekin harremanetan jartzeko eta gure enpresan inbertitu ahal izateko.

Aliantzak, batik bat, baliabideak eskuratzeko egingo ditugu, haiek gabe gure proiektua aurrera eramatea ezinezkoa izango delako eta horrela gure bezeroei eskaintza egokiago bat egingo diegu.

Hau guztia egiteko beharrezkoa da udaletxeko baimena izatea, hori dela eta, egindako ekintza guztien berri eman behar zaie bertako arduradunei.